

# **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Enpresa guztiek dituzte beren funtsezko baliabideak eta horien barruan, zenbait funtsezko ezaugarri desberdin ditzazkegu. Negozio-eredu jakin batean zenbait modu azter ditzazkegu funtsezko baliabide deritzonak aplikatzeko aukera eduki ahal izateko. Hainbat funtsezko baliabide dira kontuan hartu behar direnak enpresa-proiektu eraginkor bat garatu eta zabaltzeko ideia helburu dugularik. Honako hauek dira gure proiektuan zehar aztertu nahi izan ditugun baliabideak:

Lehenik eta behin aztertzen hasiko garen puntua externalizazioa deritzo. Gure enpresaren barruan badaude zenbait baliabide ezinbestekoak direnak eta horiek gabe gure produktuak zentzurik izango ez luketenak. Lehen aipatutako baliabide hori, gurea ez den kanpoko beste enpresa batek sor dezake, bi helburu argi aurrean dituelarik: hasteko kostuak merkatu nahiko dira eta beste alde batetik begiratu gure enpresak baliabide hori egiteko erabili beharko dituen esfortzuak, balio erantsi handiagoa eskain dezakeen beste arlo batzuetan kontzentratzeko erabil ditzazke. Gure proiektuari erreparatu gure enpresatik kanpo sortzera eramango dugun baliabide ezinbesteko hori, azetona izango litzateke, eta horrez gain, GPS-aren sorrera ere beste enpresa desberdin baten esku utziko genuke nahiz eta gurean produktu hori hobetu ahal izateko langile kualifikatuak ditugun eta gurean egingo duguna kanpotik ekarritako eta guk sortutako pultseraren montaketa izango litzateke. Externalizazioari deritzenez, oso garrantzitsua iruditu zaigu honetaz baliatzea, kostuen murrizketa ekar dezakeenez beste ekintza batetan gehiago zentratu gaitzake eta diru hori bertara bideratu dezakegu, adibidez gure produktua bera hobetzeko aukera eskuartean baliatu dezakegu. Produktu hauek enpresaz kanpo lortu nahi ditugunez gero hainbat enpresa ezberdin aztertu ditugu baliabide hauek lortu ahal izateko. Lehenengo baliabidea, azetona, Distiller S.A. enpresaren esku utziko genuke, enpresa hau Bartzelonan du bere egoitza Sta Perpètua de La Mogoda herrian kokatuta, konkretuki Can Bernades Subira Industrial gunean, lehen URVASA izenez ezaguna zena. Honetaz aparte, Sorian, Olvega herrian ere aurkitu dezakegu enpresa hau, Bartzelonako etorbidean, Kanpotik lortu nahi dugun beste baliabidea, pultseran jarriko dugun mikro txip bat izango litzateke gure bezeroaren kokapena jakin ahal izateko eta segurtasuna bermatzeko. Produktu honek TKSTAR du izena eta Shenzhen Juneo Technology Limited enpresaren bidez lortu genezake. Enpresa hau Txinan, Herbehereetan eta Suitzan dago kokatuta baina, guri errentagarrien iruditu zaiguna European, Suitzan kokatuta dagoena da, Hardenberg-en.



Bigarrenik, kostuak murrizteko biderik egokiena aurkitu nahi izan dugu. Horretarako, lehengaiak beste enpresa batzuetatik lortzea erabaki dugu eta ondoren gure produktuari guk emango diogu forma montaketa prozesu konplexu baten bidez, makinak erabiliz eta langile kualifikatuak erabiliz.

Funtsezko baliabide horien xedea, enpresa baten kostuetan duten eragina minimizatzea da, hau da, kostuei erantsi beharko litzaiekeen lehengaien zatia murrizteko aukera lortzen dugu. Gure enpresak eskuratuko dituen lehengaiak pultsera sortu ahal izateko plastikoa eta esponja dira. Produktu hauek eskuratu ahal izateko hainbat enpresekin jarri gara kontaktuan. Plastikoa eskuratu ahal izateko kontaktatu dugun enpresa Etxeplas izenez ezagutua da eta Hernani herrian dago kokatua, Gipuzkoan. Esponjak sortzen dituen enpresa batekin harremanetan jarri izan behar dugu, lehengai hori lortu ahal izateko, eta hau egiteko Surplastik enpresarekin lotu gara. Huelvan kokatua, zehazki Hinojos herrian. Pultseraren barruan arukitu dezakegu azkeneko lehengaia, pultsera eskumuturrera ondo lotu ahal izateko, material gogorra eta tolestagarria dena lortu behar genuen. Informazioa biltzen gindoazen eina ez zainua gure beharrak asetzeko moduko material aproposa zela ohartu ginen. Hau lortu ahal izateko [www.manualidadesybellasartes.es](http://www.manualidadesybellasartes.es) orrialdean lortzeko aukera ikusi genuen, MYBA akronimoz ere ezaguna den enpresan, eta bertatik beharrezkoa zitzaigun eskaera egin genezakeen. Enpresa hau Moralzarzal herrian kokatuta dago, Madrilen. Kontuan izan behar dugu badaudela zenbait momentu non merkatua hobeto segmentatzea edo gure baliabideak hobeto kudeatzeak kostuak gutxiago izan daitezkeen aukera ematen digute.

Gure enpresaren ezaugarri adierazgarrienetako bat dugun produktu edo zerbitzua perfektionatzeko gaitasuna da. Horretarako edozei baliabide aukeratu dezakegu gure produktu osoari ikuspuntu berri bat eman ahal izateko eta beraz berritzailea izateko. Hau lortzeko galdera bat egin behar diogu gure buruari: Zenbateraino interesatzen zaigu enpresa edo organizazio baten funtsezko baliabideetan hobekuntzak egitea? Honi buruz asko hausnartu ondoren konturatu gara denbora guztian gure bezeroen gauza berriak edo hobekuntzak eskaintzeak gure izen ona eta beraien segurtasuna bermatu eta sustatuko duela. Etengabeko hobekuntzak lortu ahal izateko gure enpresak zenbait pertsona kualifikatu izango ditu soldatapean etengabe gauza berriak esperimendatzen, pentsatzen... Pertsona horiek izan behar duten prestakuntza nagusia gure produktuari berrikuntza kutsu bat emateko gaitasuna izan beharko du. Horretarako, eskatzen zaizkien ikasketak nagusiki ingenieritza bat edukitzea, gauza berriak probatzeko beldurrik ez izatea, inizatiba, etab. Gure helburu nagusia ez da gurean mantentzea baizik, gure bezeroen segurtasuna eta ongizatea ziurtatzea eta erraztea, produktu berritzaile eta erabilgarri baten bidez. Gure langile, pentsalariei, jartzen diegun helmugetako bat gure produktua ekologikoagoa eta naturarekin errespetagarriagoa izatea da. Hau lortzeko material berri bat aurki dezakete gure produktua gaur egun den bezain eraginkorra izateko

baina gutxiago kutsa dezan. Badakigu gure produktuaren ezaugarriak direla eta ez dela oso erraza beti berritzen egotea, ez Google eta Facebook-ek duten maiztasunarekin. Gainera badakigu ere gure produktua ekologikoagoa izateak hainbat zailtasun edukiko dituela, besteak beste, guk erabiltzen dugu produktu kimikoetako bat azetona denez, hori bezalako baliabide ordezkagarri bat ekologikoagoa izatea oso zaila iruditzen zaigu eta bestalde plastikoa erabiltzen dugunez gure pultsera egiteko, horri gehien bat beste irtenbide bat eman beharko litzaioke eta horretarako jada gure pentsalariak irtenbide egoki bat atera dute aurrera eramateko posible iruditzen zaigun bat, gure pultserak egiteko erabilitako plastikoa birziklatutakoa izatea eta ez guztiz berria.

Esaten denez, enpresa baten funtsezko baliabideak ordeztuak izan ahal behar dira enpresak bere jarduerari eutsi nahi badio. Baina gu ez gaude guztiz ados horrekin, zenbait kasutan honek adierazten duena baliabidea amaitu egingo dela izanez ez du zertan berehala gertatu behar. Hau gertatu daiteke arrantza edo ehiza inguruko jardueretan baina ez du zertan horrela izan behar beste zenbait jardueretan. Oso argia den adibide bat petroleoa izango litzateke, hau noizbait amaitu egingo den baliabide bat da eta honen bidez funtzionatzen duten enpresa guztiak ez dute beste ordezkotako baliabiderik beraien enpresa aurrera eraman ahal izateko. Baina, ala eta guztiz ere aurrera jarraitzen dute beraien produktua merkaturatzen eta gure kasua berdina dela iruditzen zaigu, epe luzearako ditugu erabilitako lehengaiak. Galdera ikur tartean sartzan dugu ea horrenbesteko garrantzia duen ordezkotako baliabide bat izatea inguruan, azken finean oraintxe frogatu dugun moduan enpresa guztiek ez dute zertan eduki bere inguruan ordezkotako baliabide "garrantzitsu" hori.

Gure produktua ordezkotua izan badaiteke bere balioa galtzeko arriskua du, gure bezeroek beste produktu hori erosteko aukera izango dutelako. Baina argi daukagun gauza bat, ideia berritzailea denez oraindik inork ez du pentsatzeko aukerarik izan gure produktua ordeztu dezakeen beste batengan. Noski, posible ikusten dugu, etorkizunean, norbaitek edo enpresaren batek gure aurrean gure produktuari itzala egingo dion beste produkturen bat asma dezakeela. Baina, horregatik beragatik ditugu gure enpresa barruan berrikuntzarako prestatuta dauden pertsona kualifikatu eta pentsalari gorenak, inork gure produktua ordeztu ez dezan eta honela gure zerbitzuak balioa gal ez dezan. Gaur egun, gure arazoetako bat izan daiteke erlaxatzea, hau da, lehiakortasunik ez dugunez, pentsa dezakegu ez dugula izango beste inor gu zapaltzeko. Baina, hau jada badakigunez kontuan izango dugu eta saiatuko gara beti pauso bat aurrerago joaten inor berria

gure merkatuan sartuko balitz horren aurrean guk zerbait egin ahal izateko eta ez beti atzeratuta egoteko. Gure ordezeko produktu bat sortzen duen enpresa batek positiboki eragin diezaguke lehiakorrago izatera bultza gaitzakeelako, nahiz eta hori momentu hauetan pixka bat alderatuta dugun.

Gai hau guztiz borobiltzeko, lehen aipatu dugun moduan, erabakia hartu dugu, zenbait baliabide kanpoko beste enpresa batengandik lortuko ditugula baina badaudela hainbat ekintza enpresan bertan egin behar direnal eta kanpoko inori egiten utzi ezin zaizkionak.

Oihane Mendizabal  
Leyre Guirado  
Enara Ballano  
Yone Vitoria